

BIRPASA ARIKETAEN EMAITZAK

1.GAIA

Hurrengo baieztapenak aztertu eta esan ezazu egia ala gezurra diren

Baieztapena	egia	gezurra
Lipopolikakaridoa (LPS) bakterio guztien hormako oinarrizko osagaia da		X
Bakterio gram-positiboek gram-negatiboek baino peptidoglikano gehiago dute	X	
Mikobakterioen hormetan lipidozko kanpo-mintz bat dago		X
Kapsula ezinbestekoa da bakterioak bizirik irauteko		X
Finbriak ostalariaren ehunetan eranstea erabili ohi dira	X	

EZ da peptidoglikano molekularen osagai bat:

- KDO (azido ketodeoxioktonato)
- NAG (N-azetil glukosamina)
- NAM (N-azetil muramiko)
- meso-DMP (mesodiaminopimeliko) aminoazido

Definizio bakoitzari dagokion hitza bilatu hurrengo zerrendan eta taulan kokatu: Finbriak, Zelula gram-positiboa, Lipopolisakaridoa (LPS)*, Pilus sexuala*, Kapsula, Flageloa, Endospora, Peptidoglikanoa, Zelula gram-negatiboa, Muki-geruza* Porinak, Plasmidoa. *ez daude definituta

Definizioa	Hitza
Bakterio jakin batzuen barruan eraturako zelula bereizgarria; beroaren aurrean eta beste agente kaltegarri batzuen aurrean, oso erresistentea da.	Endospora
Bakterio-zelulako proteinazko egitura labur eta haritsuak. Gainazalei atxikitze balio dute.	Finbriak
Prokariotoek mugitzeko duten organo mehe eta haritsuak; errotazioz funtzionatzen du.	Flageloa
Zelula estu inguratzen duen polisakarido- edo proteina-geruza lodi eta ongi definitua.	Kapsula
Kromosomatik kanpo dagoen elementu genetiko; ez da beharrezkoa hazkuntzarako eta ez du zelulaz kanpoko formarik.	Plasmidoa
Bakterio gramnegatiboan kanpo-mintzean dauden proteina-kanalak; kanal horietatik tamaina txiki eta ertaineko molekulak pasa daitezke.	Porinak
Zelula-horma gehienbat peptidoglikanoz osatuta daukan zelula prokariotikoa.	Zelula gram-positiboa
Bakterioen zelula-hormako geruza zurruna; N-azetilglukosaminaz, azido N-azetil muramikoaz eta aminoazido batzuek eraturako geruza mehea. Mureina izenez ere ezagutzen da.	Peptidoglikanoa
Zelula-horman nahiko peptidoglikano gutxi duen eta, horren gainetik, beste mintz bat duen zelula prokariotikoa. Azken mintz hori lipopolisakaridoz, lipoproteinaz eta beste makromolekula konplexu batzuek osatuta dago.	Zelula gram-negatiboa

Escherichia coli hazteko hurrengo hazkuntza-ingurua prestatzen dugu laborategian:

- Glukosa 10 gr
- Nitrato monopotasikoa 0,1 gr
- Nitrato bipotasikoa 0,1 gr
- Agar-agar 7 gr

Ez da haziko, nahiz eta inguruko atmosferan oxigenoa egon eta tenperatura 37°Ckoa izan.

Zein izan daiteke arrazoia? Ura ez izatea! Hazkuntza ingurua guztiek, solidoak barne, ura behar dute gainontzeko elikagaiak disolbatzeko eta O eta H iturri moduan.

2.GAIA

Hurrengo baieztapenak aztertu eta esan ezazu egia ala gezurra diren

Baieztapena	egia	gezurra
Bakterioen plasmidoek birulentzi-geneak izan ditzakete	X	
Plasmidoak bakteriofagoen bidez transmititu ahal dira	X	
Transformazioa gertatzeko bakterioen arteko kontaktu fisikoa behar da		X
Bakterio-populazioetan berezko mutazio tasa eukariotoen populaziotan baino askoz handiagoa da		X
Transposonetan dauden antibiotikoen erresistentzi-geneak arin zabaltzen dira bakterio espezie ezberdinetan	X	

Bi bakterioen arteko transferentzia genetiko mekanismoetatik zein ez da gertatuko nukleasak dituen inguru batean:

- a. konjugazioa
- b. transformazioa**
- c. transdukzio orokorra
- d. transdukzio murriztua

3.GAIA

Elkatu termino bakoitza dagokion definizioarekin

1. Lehen mailako patogenoa	g) aurretik osasuntsu dauden ostalariei kaltea eragiteko gaitasuna duen organismoa.
2. Patogeno oportunistak	d) soilik aurretik immunogutxituta dauden ostalariei kaltea eragiteko gaitasuna duen organismoa
3. Eramaille osasuntsua	h) organismo patogenoak infektatuta dagoen pertsona osasuntsu bat; infekzioa transmititu dezake besteei
4. Patogenotasuna	c) bizkarroi batek ostalariari kalte egiteko duen gaitasuna.
5. Infekzioa	k) patogenoen ugalketa ostalariaren barruan
6. Gaixotasun infekziosoa	f) mikroorganismoen ugalketatik sortutako gaitz sintomatikoa
7. Birulentzia	j) bizkarroi baten patogenotasun-maila.
8. Kolonizazioa	b) mikroorganismo baten ugalketa ostalariaren kanpoaldean (larruazalean edo mukosetan)
9. Endotoxina	e) zelulatik askatzen ez den toxina; zelularen kanpo-mintzari lotutako lipidoa da.
10. Exotoxina	a) zelulatik kanpora jariatzen den proteina toxikoa.
11. Sideroforoa	i) burdinari, oso kontzentrazio txikian egon arren, lotzeko gaitasuna duen burdina entzima-multzoa.

Gaixotasun infekziosoen bilakaeraren eskema egin (urratsak)

- a. kolonizazioa eta atxikidura infekzio-atean
- b. inbasioa
- c. hedapena
- d. defentsa-mekanismoen gainditzea
- e. ostalariaren baldintzetara moldatzea
- f. kaltea

Taula osatu

Ezaugarriak	Exotoxinak	Endotoxina
Izaera kimikoa	Proteinak	A lipidoa (LPSan)
Toxizitatea	Handia	Ertaina
Ekintza mekanismoa	Espezifikoa	Ez espezifikoa
Beroarekiko sentikortasuna	Bai	Ez
Toxoideak	Bai	Ez
Immunogenizitatea	Asko	Gutxi
Txertoak egiteko aukera	Bai	Ez
Bakterio sortzaileak	G+ batzuk eta G- batzuk	Gram-negatiboak